

GAIXOAREN PAZKOA 2021

BIZITZA AZTERKETARAKO LAGUNGARRIAK



SARRERA

Hona hemen lagungarri honeek, zuen taldeetan gaixoen egoeraren inguruan gogoeta egin daizuen. Gure konpromisoa aztertzeko eta gaixoei abegia erakusteko aukera da.

Bizitza azterketa hau batzar baten edo bitan egiteko da. Taldekide batek bere gain hartuko dau sustatzaile edo eragile izateko ardura.

«ALKAR ZAINDU»



**ZENBAT ETA GEHIAGO ETA, SENIDE
MAITASUNAK SUSPERTUTA
ERAGINKORTASUN HANDIAGOZ,
ZAINDU KIDERIK AHUL ETA
OINAZETSUENAK, ORDUAN ETA
GIZATASUN GEHIAGO IZANGO DAU
GIZARTEAK.
(FRANTZISKO AITA SANTUA)**

Gaixoaren kanpainak, aurton, gaixoari eskaini beharreko akonpainamenduari dagokionez esanguratsua dan goiburua eskaintzen deusku: "Alkar zaindu". Beharbada gutako asko ohituta egongo da bestea zaintzera, besteei lagun egitera, beti beste hori lehenetsiz. Halanda be, beste hori zaintzen jarraitu ahal izateko, nork bere burua zaintzea be behar-beharrezkoa eta ezinbestekoa dala ikusten dogu.

Pandemia aldi honetan, beharbada aurretik esperimentatu ez dogun -gitxienez, ez hainbesteko sakontasunez- hainbat alderdiz ohartzen dihardugu. Eta horreetako bat, zaintza da, alkar zaintzea. Danok dogu zaindu beharra.

1

1. UNEA: ERREALIDADERA BEGIRATU - IKUSI

Horretarako abiapuntua, Zerbitzu Erlijioso eta Espiritualerako ospitaleko talde baten hausnarketa [1] izango da. Pandemiaren hasieran idatzitako txatala da eta gutako bakotxak izan dauan hainbat bizipen eta besteari, gaixoari, sufritzen dagoanari lagun egitearen askotariko esperientziak jasoten ditu.

2

2. UNEA: JAINKOAREN HITZAREN ETA FRANTZISKO AITA SANTUAREN HITZEN ARGITAN- EPAITU

Jainkoaren Hitzaren eta Aita Santuaren deiak entzungo ditugu. Hausnarketa bakarka eta taldean.

3

3. UNEA: MARTXAN JARRI - EKINER

Argibide eta jardunbideak martxan jarteko eta aurrera egiteko bakarka, taldean eta kristau alkarte lez.

[1] Arreta Erlijioso eta Espiritualerako Basurtoko Ospitaleko Zerbitzua.



“Azkenaldian, eta beti be maitasunez eta gure osasunaren inguruan ardura erakutsiz bada be, batez be galdera bat egiten deuskue: ‘orain be ospitalera joaten zarie?’. Bai, orain be ospitalera joaten gara. ‘Baina, eleizak be itxi dabez-eta, ze egiten dozue ospitalean?’. Ba, beste barik, ohiko jarduerari eusten deutsagu, baina esaten deuskuenari jaramon eginez; ezin dogu hainbeste bisita egin, murrizketak dagoz eta ezin gara lehen lez korridoreetan hara eta hona ibili. Bai, ospitaleetan dogun presentzia zentzuz beteta dago, eta zer esanik ez une korapilatsu honeetan, non gaixoak sekula baino ahulago dagozan eta sekula baino gehiago sufritzen daben.

Ospitalean sartzean sentitzen dozuna, berba bakarrean laburtu daiteke: tristura. Tristura, lorategia hutsik ikustean, ospitalearen biriki dan eremu hori hutsik, airea hartzera ataraten dan gaixo barik ikustean; tristura, bankuetan edo gaixoen ondoan senide eta lagunik ez ikustean. Tristura, pabiloietako korridoreak hutsik ikustean. Tristura, gaixoei bisitarik ez dabela ikustean, inork ezin dauhalako bisitara joan, senideak kutsatzeko arriskua dauhalako edo gaixoak berak ez joateko eskatzen deusalako, arriskuak uxatzeko... Bakardade asko. Eta hori, koronabirusik ez daukien gaixoen kasuan, kutsatuta dagozanen bakardadea are eta gordinagoa da-eta. Ospitalean koronabirusak jota dagozan gaixoak dagozalako, bai, baina baita bestelako gaixotasunak dabezanak be eta ezinbestekoa da horreei lagun egitea.

Koronabirusa daukien gaixoei urrutitik lagun egiten deutsegu, hau da, bitartekotza-lana eginez, non dagozan ospitaleratuta jakinez, familiak gaixoagaz hartu-emonen izateko sakelako telefonoa eroan deikeon galdetuz, tarte batez interfonoz berba eginez, halletik bertatik otoitz eginez, ezin garalako gaixoengana gerturatu, gaixoen senideei dei eginez hareen egoeraz arduratzekok, telefono bidez otoitz eginez, e.a. [...]



Atsekabez eta sufrimentuz inguratuta egon arren, Jainkoak eutsi eta lagundu egiten deuskula sentitzen dogu, egoera, pertsona eta familia bakotxari arreta eta laguntasuna eskaintzen jarraitzeko. Sentiberatasun eta hunkipen handiz bizi dogu egun bakotxa. Eta ez da gitxiagorako, izan be, sufrimentu askoren lekuko gara eta, aldi berean, maitasunezko eta esker oneko keinu ugariren jasotzaile. Familien eta gaixoen esker oneko mezuak hunkigarriak dira eta aurrera egiten laguntzen deuskue. Nahigabeari hitzak ipinten laguntzen ari gara, otoitzez hornitzen, familiek eta gaixoez otoitz egin daien, euren ondoan egoteik ez badogu be. [...]



Nabarmentzekoa da Eleizbarrutitik, Karidade eta Zuzentasunerako Ordezkaritzatik jasoten dogun arreta. Gutaz arduratzen dira eta, behar izan ezker, bitarteko psikologikoak jarten dabez gure esku. Abade gazteenak behar dogunean laguntzeko prest dagoz. Bihotzez eskertzen dogu Zerbitu Erlijiosorako boluntarioen lana; egunero deitzen deuskue eta ospitalean ondoan izango bagenduz lez sentitzen doguz. Egoera honek, sekula baino alkartuago egotera eroan gaitu; ia ez dogu alkar ikusten, txandetan topo ez egiteko, baina egunero deitzen deusagu alkarri, adorea eta bakotxaren onena emoteko. Ospitaleko gainerako langileekin be -garbitzaileak, laguntzaileak, erizainak, sarrerakoak...- lotura estua dogu. Alkarri laguntzen deusagu, kaperara etorten dira otoitz egitera, otoitz egiteko eskatzen deuskue eta euren kezkak agertzen.

Ez doguz egun errazak bizi, ezta gitxiago be, baina zentzuz betetako egunak dira eta sekula bertan behera izten ez gaituan eta bidelagun eta zaintzaile dogun Jainko Aita-Ama errukitsuak eusten gaituala sentitzen dogu.”



BARRURATU ETA GURE ESPERIENTZIAK BATERA JARRI

1. Ezinbestekoa da gehien behar gaituen lekuetan, gehien behar gaituenen ondoan egotea. Halanda be, askotan gatxa da, pandemia aldi honetan ikusten dihardugunez. Zelan baloratzen dot presentzia, agerpena? Sufritzen dagoanaren, gaixoaren ondoan egon naiteke? Egon nazan uneren bat eta egoterik izan ez dodan besteren bat gogoratu. Zelan sentitu naz?
2. Hainbat unetan, tristura, bakardadea... somatzen da... Bizi ete dot esperientzia hori? Eta, nire inguruan?
3. Ze jarrera nabaritzen dot: arduragabetasuna, gogorik eza, axolagabetasuna, alkar zaintzea, itxaropena...?
4. Tarte soziala bizi dogu, askotan alkarrengandik 1,5 metrotara egotea be galarazi deuskuna. Zelan lagundu daiket 'urrutitik'? Ze bitartekoz baliatu naiteke? Adibideak bilatu neure inguruan.
5. Atsegingarria da zaintzea eta zaintza jasotzea. Zelan hartzen dot besteen zaintza? Zelan hartzen dot besteen esker ona zaintzen dodazanean? Zelan bizi dot doakotasuna?
6. Zaintzen dot neure burua, besteak zaindu ahal izateko? Besteek zaintzen nabela sentitzen dot? Bizitzako gertaeraren bat non alkar zaindu dogun gogoratuko dot.
7. Zaintzan, Jainkoa lagun dodala sentitzen dot? Zelan laguntzen deust?

Gaixoakaz dogun hartu-emona epaitzeko eta baloratzeko, gogoan izan daikegu hasierako kristau alkartearen jarrera: bizirik eutsi eutsan Jesusek leku guztietatik Berarengana jotzen eben gaixoakaz eban jarduera sendatzailearen gomutari. Jesusek, Nazareteko sinagogan hots egin eban lez, Jainkoaren Espirituarengandik jasotako misinoa betez jarduten eban holan, San Lukasen ebanjelioan irakurri daitekenez:



Jesus Nazaretera, bera hazi zan herrira, joan zan, eta zapatuan sinagogan sartu, ohi ebanez, eta zutunik jarri zan irakurgaia egiteko. Isaias profetaren liburua emon eutsoen eta, edegitzean, pasarte hauxe aurkitu eban: "Jaunaren Espiritua nire gainean dago, ze, berak gantzutu nau, behartsuei Barri Ona emoteko. Giltzapekoei askatasuna eta itsuei ikusmena iragartzera bialdu nau, zapalduei askatasuna emotera, Jaunaren grazia-urtea iragartzera". (Lk 4, 16-19).

Ikasleak aintzat hartzen ditu Jesusek egiteko honetarako eta Jainkoaren Erreinuaren etorrera iragartzera bialtzen ditu. Gaixoak sendatzea izango da Jainkoaren errukizko hurkotasuna erakutsiko daben zantzuetakoko bat.



Jesusek, hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena emon eutsen espiritu txarrak botatzeko eta gatx eta gaixotasun guztiak osatzeko. (...) Bidean zoazeela, iragarri hurrean dala zeruetako erreinua. Osatu egizuez gaixoak, biztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu dozue, emon hutsean. (Mateo 10, 1. 7-8)

Jesus hil ondoren, ikasleek mandatari sentitzen dira eta euren burua maisuaren egiteko sendatzaileari jarraipena emoteko gauza ikusten dabe:



Behin baten, Pedro eta Joan tenplura joiazan bazkalondoko otoitzera. Tenpluko 'Ate eder' esaten eutsoenaren sarreran, Jaiotzatik herrena zan gizon bat egoan. Egunero ipintzen eben han, tenplura sartzen ziranei limosna eskatzeko. Pedro eta Joan sartzen ikusirik, limosna eskatu eutsen. Hareek begira gelditu jakozan, eta Pedrok esan eutson: "Aditu guri". Ha adi-adi jarri jaken, zeozer emongo eutsoelakoan. Orduan, Pedrok esan eutson. "Ez daukat ez urrerik, ez zidarrik, baina daukadana emongo deutsut: Jesu Krissto Nazaretarraren izenean, jagi eta ibili". Eta, eskumako eskutik oraturik, altzarazo egin eban. Bat-batean, gizonaren oinak eta orpoak indartu egin ziran, salto batez zutundu eta ibiltzen hasi zan. Eta apostoluekin batera tenplura sartu zan bera beratara oinez, saltoka eta Jainkoari goraka. (Eginak 3, 1-8)

Gaixoen zaintza, Eleizaren nortasunaren ezaugarri izan da sasoi guztietan; hori holan izanda, makina bat erakunde sortu izan dau historian zehar eta alkarte erlijiosoak sustatu, behartsu eta gaixoen zerbitzura.

Hona hemen gaurkotasunez beteta dagozan eta gaixoakaz dogun hartu-emonen lagungarri izan daitekezan Frantzisko Aita Santuaren berbak:



“Behartsu edo gaixoaren aurrean “Kristoren antzera jokatzeko”, bildur barik begiratu behar deusagu begietara eta berarengana samurtasun eta errukiz hurreratu, eta ikutu eta besarkatu. Hainbat aldiz eskatu deutset besteei laguntzen deusenei, begietara begiratzuz egiteko, bildur barik ikutzeko; laguntzarako zeinu hori, hartu-emonerako zeinu bihurtu daiteela: geuk be ezintestekoa dogu euren harrera. Samurtasunezko zeinua, errukizko zeinua... Baina, galdera bat: besteei laguntzen deusezuenen, begietara begiratzuz deusezue?, ikutzeko bildur barik hartzen dozuez?, samurtasunez hartzen dozuez? Pentsatu: zelan laguntzen dozue?, urrutitik, ala samurtasunez, hurkotasunez? (2015.eko otsailaren 15a, Angelusa)



Hain zuzen be, gaixoarekiko hartu-emon honek Kristoren maitasunean aurkitzen dau motibazio eta indar iturri agortezina, gaixoen zerbitzuan santutasuna jadetsi daben gizon eta emakumeen milaka urteko lekukotasunak erakusten dauan lez. Izan be, Kristoren heriotza eta berbizkundearen misteriotik sortzen da gaixoaren egoerari zein berau zaintzen dauanaren egoerari zentzun betea emon leikeon maitasuna. Ebanjelioak makina bat bider emoten dau horren lekukotasuna, Jesusek egiten ebazan sendatzeak zeinu magikoak ez ezik alkartzearen, lagun arteko hartu-emonaren emaitza zirala erakutsiz eta bategite horreetan Jesusek eskaintzen dauan Jainkoaren doeari onartzen dauanaren fedeak erantzuten deusala, Jesusek sarritan dinoanak laburtzen dauan lez: “Zeure fedeak salbatu zaitu” (Gaixoaren Munduko XXIX Egunerako mezutik).



Alkarte batekiko kidetasun-sena eta bere aldeko alkartasun-sena –denpora, ahalegina eta ondasunak emoteko- berreskuratzen ez badoguz, engainatzen gaituan ilusino orokorrak porrot egin eta behea joko dau eta asko eta asko nazka eta hustasunaren menpe itziko (...) “Salbatu daiala bakotxak bere burua” dalakoa “danok danon aurka” bilakatuko da bizkor eta hau pandemia baino okerragoa izango da. (Fratelli tutti, 36).



ISILIK, BAKARKA GOGOETA EGIN ETA, ONDOREN, BATERA JARRI:

- Idazkion argitan, ze dei egiten deust Jainkoak?
- Frantzisko Aita Santuak dinoan lez, begietara begiratzen deustat laguntzen deustadanari?, zelan egiten dot, urrutitik, samurtasunez, gertutasunez?
- Ze jarrera aldatu beharko neuke nire bizitzan alkar zaintze hori egia bihurtzeko?
- Orokorrean, zer esaten ete deustso Jainkoak gure inguruko gizarteari?



Orain, ekintza zehatzak, egiteko eta aztertze moduko ekintzak proposatu behar doguz, alkar zaintzeko gauza izan gaitezan. Maila pertsonalean, ze ekintza proposatzen deusat neure buruari? Taldean, ze ekintza gauzatu daikegu talde lez?

1. Ba ete dago gaixorik zure parrokia alkartean? Holako zenbat ezagutzen dozu? Badakizu ze zaletasun, ze kezka,... daben, egunez egun euren eta euren familiek ze zailtasuni aurre egin behar deusen? Hurreratu zaitez eurengana jakin ahal izateko.


2. Badozu osasun pastortzarako taldeen barri? Erantzuna ezezkoa bada, galdetu zure parrokia/PBan, ia osasun pastortzarako eragilerik dagoan eta ze egiteko daben alkartean.

Erantzuna baiezkoa bada, ze ekimen zehatz garatzen dabe zure parrokia/PBko osasun pastortzarako eragileek? Bat egin ete zeinke ekimenen bategaz?

3. Bizkeliza web orrialdean jasotzen dan ospitaleetako AEEZrako taldeen inguruko informazino jaitzi eta batera jarri adiskide eta ezagunen sarean.

4. Beti esaten da gaixoelek lehentasuna dabela parrokian. Ze eskaintza burutu daikegu alkar lez euren trebetasun eta gaitasunak garatzeko eta euren bizi-baldintzak hobetzeko? Aurkitu zure inguruko beste talde edo erakunde batzuk pertsona nagusientzat edo gaixoentzat eskaintzen dabenaren inguruko informazinoa. Ze gehiago eskaini deikiegu?

5. Zelan prestatu behar doguz gure jarduera eta ospakizunak bertan gaixoelek bete-betea parte hartu daien? Aipatu gitxienez ekintza bi pandemia aldi honetan garatu ahal izateko.



OTOITZA

Mundu osoan hedatuta dagoan pandemia aldian,
otoitz egin gura dogu gaixo dagozanen, sufritzen dabenen...
eta bildurra eta estutasuna sentitzen dogunon alde...

Gure esker ona lehenengo lerroan dagozan guztiei:
sendagile, erizain, medikuntzako eta ospitaleetako langile,
zaintzaile, senide, adiskide eta ezezagun.
Euren segurtasun, osasun eta sendotasunaren alde otoitz egiten dogu.

Legia beterarazoteaz arduratzen diranen alde otoitz egiten dogu,
gidaritza izan daien euren erabaki eta ekintzetan.

Alkarte zientifikoaren alde otoitz egiten dogu,
koronabirusari aurre egiteko eta berau geldiarazteko
bidea aurkitu daien.


Ama Lurraren alde otoitz egiten dogu,
jasanarazo deusagun akidura eta suntsidura gainditu
eta bere senera etorri daiten,
eta birus hau jasaten, izadiaren edertasun eta aniztasuna berreskuratzen
eta geure burua eta bizimoduak barritzen
irakatsi deigun.

Alkarren alde otoitz egin daigun:

- zuhur jokatu daigun geldirik geratu barik
- gizarte erantzukizuna gauzatu eta ahulenengan pentsatu daigun
- hartu-emonerako bideak, zaintzeko eta errukiz jokatzeko bideak
asmatu daiguzan,
- krisiari aurre egite aldera hartutako neurrien eraginik larriena jasaten
dabenei laguntzeko bideak asmatu daiguzan
- entzun eta esperientzia honetatik ikasi daigun.

Konfiantzaz, arren eskatzen deusagu Biziaren eta Itxaropenaren Jainkoari
errukia eta sendatzea emon deiguzan...!

BALORAZINOA



Lagungarriok baliagarri izan dira?

Ze bitarteko jaso gurako zeunke Eleizbarrutitik zure talde/parrokia/pastoral barrutian osasunaren pastoral alderdian gehiago sakontzeko?

LAGUNDU HOBETZEN, zure ebaluazino eta oharrak ondorengo estekaren bidez bialduz:



Lagungarrien
ebaluazinoa

